

Asteartea, maiatzak 2

Jaso Ikastolako ikasleek Autismoari eskainitako hamaikagarren musikala estreinatuko dute ostiralean, hilak 5

- *TE-4000 HEGALDIAN antzezpen berria Barañaingo Auditorioan taularatuko da 11:00etan ikasleentzat eta 19:00etan jendearentzat zabalik, 15€an salgai.*
- *Proiektu hau DBHko sormen eta ekintzailtza hezkuntza programa baten emaitza da, Iruñeko ikastolaren bereizgarri den STEAM metodologiaren esparruan.*
- *Musikalaren helburuak gaitasunetan heztea, adimen emozionala eta sorkuntza garatzea, elkarbizitza eta euskararen erabilera sustatzea dira.*
- *Aurten, ikuskizunak Iruñeko Gazte Orkestraren laguntza izango du eta ANFAS, ANA, LUCIERNAGA eta SEN erakundeen babespean egin da.*



IRUÑEA.- JASO IKASTOLAko ikasleek bere hamaikagarren edizioa den *TE-4000 HEGALDIAN* musikala antzeztuko dute ostiral honetan, Maiatzaren 5ean, Barañain Auditorioan. Ikuskizun honek JASO IKASTOLAk lantzen duen hezkuntza eredu du iturria eta, hain zuzen ere, sormena, ekintzaitza, lan kooperatiboa eta autogestioa ardatz dituen hezkuntza-programa baten emaitza da, STEAM metodologian (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematika) oinarrituta. Ikasleek ikasturte osoan zehar prestatu duten lanaren ondorioa da.

TE-4000 musikalaren estreinaldia ostiral honetan izango da, maiatzaren 5ean, 19:00etan, Barañaingo Auditorioan publikoari irekia eta 15€an salgai, www.auditoriobaranain.com webgunearen bitartez. Aurretik, goizean bertan, JASO IKASTOLAko eta Barañaingo Alaitz eskolako ikasleentzat musikalak aurre-estreinaldia egingo du.

Jaso IKASTOLAko DBHko berrogeita hamar ikasle inguruk (12 eta 16 urte bitartekoak) parte hartzen dute berezko sormen proiektu honetan. Ikastola honen irakasle eta gurasoen borondatezko-lanaren laguntzarekin eta Imanol Janicesek (Gorputz Heziketako irakaslea), Irantzu Zabaltzak eta Dabid Albirak (Lehen Hezkuntzako tutoreak) eta Eva López de Lahoz (Ikasle ohiak), zuzenduta, gaitasun hezkuntza, sormena, garapen emozionala, bizikidetza eta euskararen erabilera bezalako balore helburuak lortu nahi ditugu, arte eszenikoekin berariaz lotutako gaitasunez gain.

Autismoa duten bi gazteren bidaia pertsonalean oinarrituta

JASO IKASTOLAko musikalaren edizio bakoitzak gai sozial zehatz bat lantzen du, ikasleek beraiek alde aurretik eztabaidatu eta aukeratutakoa. Oraingo honetan, *TE-4000* ikuskizun berriak autismoa du ardatz. Bi gazteren autonomia erakusteko helburuarekin, haien terapeutak Latinoamerikara egin beharreko bidai bat proposatzen die. Familiak, kezkatuta, haien anai-arrebak bidaltzen dituzte haien atzetik. Familiek eta protagonistek autismoarekiko duten ikuspegia eta errealitate

Informazio gehiago:

Imanol Janices 626 334 957 / www.jasoikastola.com / Twitter e Instagram @jasomusikala



desbedinak erakustea du helburu istorio honek. Pertsona hauen gaitasun anitzak ezagutuz, gizarte inklusibo eta anitz baten aberastasuna oholtzaratu nahi da.

Aurreko edizioetan, JASO MUSIKALAREN ikuskizunak beste gai sozial batzuk jorratu ditu, hala nola Alzheimerra eta adineko pertsonak, teknologia berrien erabilera, genero-aniztasuna, memoria historikoa, jasangarritasuna, migrazio-mugimenduak edo diruarekiko atxikimendua, besteak beste.

Aurreko edizioetako formatu arrakastatsua errepikatuz, antzezpen, kantu, dantza, akrobaziak edo efektu berezietako ikuskizuna dugu JASO MUSIKALA, prozesu artistiko osoan parte hartzen duten ikasleek beren kabuz diseinatu, sortu eta kudeatzen dutena. Besteak beste, gidoia, abestien egokitzapena, koreografiak, eszenografia, jantziak, atrezzoak, argia eta soinua, postprodukzioko, marketineko, babesletzako, sustapeneko edo sare sozialen kudeaketa lanak euren gain hartzen dituzte.

Era berean, oraingo honetan, JASO IKASTOLAREN musikalaren emanaldiak Iruñeko Gazte Orkestraren kolaborazio berezia izango du berriro ere, eta haren emanaldiarekin batera, ikasleek interpretatzen dituzten zenbait musika-alorretan arituko da.

Barañaingo Auditorioan estreinatu ondoren, Jaso Ikastolak hainbat emanaldi izanen ditu. Adineko pertsonen bideratuta dagoen emanaldi berezi bat, Misericordia Etxean ekainaren 14an, eta Iruñeko Baluarte jauregian antzeztuko den azken emanaldi nagusia Urriaren 11an.

Proposamen berritzailea euskaraz

JASO MUSIKALAREN asmo nagusietako bat da, halaber, euskarazko hezkuntza-proposamen berritzaile bihurtzea, ikastolako jarduera akademikotik kanpo euskararen erabilera gizartean sustatzeko eta adierazpen artistiko baten bidez kultura egiteko beste modu bat aldarrikatzeko.



Zentzu horretan, Euskarabidea-Nafarroako Euskararen Institutuak JASO FUNDAZIOAREKIN duen hitzarmena berritu du aurten, musikaren bidez, eta bizitzaren arlo guztietan, euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeko, kultur eskaintza eta jarduera sustatuz eta programatuz. Azken urte hauetan bezala, Euskaltzaindiak ere bere bermea eman nahi izan dio proiektuari, Nafarroan dauden euskal erakunde garrantzitsuenen bultzada jasoz.

2022 Lanaren ondorioz etorritako fruituak

Jaso Musikalak 10 urte bete zituen joan zen 2022 urtean. 10 urte hauetan egindako lanak bere ondorioa izan du, eta joan zen urtean loratu zen bat batean. Nafarroa eta Nazioarte mailako 4 sari garrantzitsu jaso zituen:

1. Espainako STEAM proiektu garrantzitsuenaren saria jaso zen INTEF-en eskutik SIMO Hezkuntza kongresuan (Instituto Nacional de Tecnologías Educativas)
2. Nafar Gobernuako Gazteriaren saria eskaini zitzaion Jaso Ikastolari azken urteetako lanaren ondorioz.
3. Navarra Televisionen “Gazteriaren Balioak” saria ere jaso zen Baluarten telebista kanalak ospatutako 2022ko sariaren galan.
4. Espainako Neurologia Elkarteak XIMUR musikala zela medio, Alzheimer 2021 Saria eskeini zion musikari Bartzelonan, Otsailan.

ANFAS, ANA, LUCIERNAGA ETA SENen babesa

Nafarroako Gobernua, Euskarabidearen bitartez, eta Fundación Caja Navarra eta Fundación La Caixa, Innova Cultural programaren bitartez, *TE-4000 HEGALDIAN* musikaren laguntzaile nagusiak dira. Baina berme nagusia Autismoarekin lotura duten erakundeen eskutik dator.

ANFAS, Nafarroako Autismo Erakundeak (ANAK), Luciernaga Erakundeak (Aspergherreen zentratua) eta Espainako Neurologia Elkartearen bermea jaso du

Informazio gehiago:

Imanol Janices 626 334 957 / www.jasoikastola.com / Twitter e Instagram @jasomusikala



proiektu honek. Hauen babesaren izena jartzea baino haratago doa. Formazioa eman diete gaiaren inguruan gidoi sorketa prozesuan, eta emanaldiari lotutako Unitate Didaktikoak ere garatu dituzte, proiektuak behar duen babes pedagogikoa ere izan dezan. Gainera erakunde hauetako hainbat pertsonak, Jaso Ikastolako ikasleekin batera urtero Unitate Didaktikoetarako egiten den [BIDEOKLIPEAN](#) parte hartu dute.

Era berean, *TE-4000* musikaleko ekoizpenak hainbat enpresaren lan eta kolaborazio profesional bereziak izan ditu, Ikusi-Arte, Festaro Auzonews eta Binario ikus-entzunezko estudioak, Chankko marketing kabinetea, Comanai ingenieritza eta Naturis Herbal bezalako erakundeak.

Erakunde eta enpresa horiei JASO IKASTOLAren musikalean ere parte hartzen duten babesle zerrenda luzea gehitu behar zaie: Love Natur Fit, Barañain marrazki eta pintura akademia, eta Julia Irigorri jantzidendak, Bodegas Beramendi, INASEL garbiketak, Lacturale, Hidrone, Linden hizkuntzak, eta Industrial Uriarte.

KANPUSA

Ekainan, 2022an bezala, Jaso Fundazioak bere II udako kanpus artistikoa antolatuko du. Akrobazia, Kantua, Dantza, Antzerkigintza, Multimedia, eszenografia eta atrezzo bezalako tailerrak bateratu dira ikastolan erabiltzen den STEAM metodologian oinarrituz. 2016 aurretik (6-12 urte) jaiotako gazteek, Ekainaren 21etik 30era goizeko 08:30etatik aurrera, primeran pasatzeko aukera dute.

Izen emateak www.campamentosenmarcha.es web orrian egin daitezke. Informazio gehiago lortzeko, [ondorengo artxibategian sakatu](#) daiteke.

